

HERIOTZA HIL DA!!!

Doinua: "Bateltxoak kulunka"

1

Pazkoaldia dogu
poza dariona,
"Heriotza Neuk hil dot"
Jesussek dinona.
Zeuk ekarri deuskuzu
Pazko zoriona,
Jesus, biztu zarala...
Hau da Barri ona.

2

Hilobira joanda
han itzi dabe lehen,
ainguruak dinotse:
"Ez, ez dago hemen".
Betiko berbiztu da
bizi barriz plen-plen;
aintza ta aleluia,
rekien danak ken.

3

Bidelagun egin da
Jesus biztubarri,
kontu kontari baina
nor dan nok igarri...
Ez dira nahiko begi,
aho ta belarri;
ogi-zatitzea da
bere ezaugarri.

4

Ikasleak etxean
batuta bildurrez,
Jesus agertzen jake
kaixoka samurrez.
"Beti zuekaz nago
itsasoz ta lurrez,
ez zaituet umezurtz
itziko ziur, ez".

5

Beste behin ikasleak
arrantzura joanak,
mamuren batek edo
dar-dar baten danak.
"E! Ez izan bildurrik,
Neu naz" deika Jaunak;
Jaunaren presentziak
bai arindu lanak!

6

Arrantzura joanda
gure ahalegina,
gau osoan batxo bat
harrapau ezina...
Zure berbak betez
barrero ekina,
eta Zuri eskerrak
hau da etekina!!!

7

Azkenez Galilean
mendi gailurrean,
guztiak besarkatuz
bihotz samurrean:
"Beti izango nozue
zuen hur-hurrean,
bedeinkatzen zaituet
azken agurrean".

8

Harrezkero hor zagoz
gaixoen artean,
eta gure erdian
kristau alkartean.
Eukaristi-Ogian
ta zure Berbean
batez be, maiteminez
gure bihotzean.

9

Jesus, biztuta gero
lehen baino hurrago,
maitasunez lotuta
alkarrekin bapo.
Bihotz-begi betean
noiz izango nago,
Zu zagozan lekuan
poza han bai dago.

A-Martzel

